



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea  
**ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO**  
**BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA**

Gradu Amaierako Lana

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2013/2014 ikasturtea

**AMARA BERRI SISTEMAREN BALIAGARRITASUNA AZTERTZEN**

**Egilea:** Jone Oliban Lizarraga

**Zuzendaria:** Arantzazu Lopez de la Serna

**Leioan, 2014ko Ekainaren 9an**

© 2014, Jone Oliban

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	3
1. Esparru teorikoa: Eskola Berria .....	5
1.1. Amara Berri Sistema .....	5
2. Metodologia .....	11
2.1. Helburuak .....	11
2.2. Hipotesiak .....	11
2.3. Lagina .....	11
2.4. Datuak biltzeko eta aztertzeko tresnak .....	13
3. Lanaren garapena .....	14
4. Emaitzak eta ondorioak .....	15
4.1. Emaitzak .....	15
4.2. Ondorioak .....	22
5. Erreferentzia bibliografikoak .....	26

## ERANSKINAK

1. eranskina: Printzipio metodologikoak .....	28
2. eranskina: Ikaslearen kontzepzioa .....	32
3. eranskina: Galdetegia .....	35
4. eranskina: Jasotako datuak .....	37
5. eranskina: Hitzarmen adostua .....	39

## AMARA BERRI SISTEMAREN BALIAGARRITASUNA AZTERTZEN

**Jone Oliban Lizarraga**

UPV/EHU

XX. mendean eman zen hezkuntza sistemaren aldaketa dela eta agertutako "Eskola Berria"ren mugimenduaren barnean dagoen Amara Berri Sistema mugimendu garrantzitsua eta oso berritzailea da. Hezkuntza kalitatea hobetzeko nahiarekin, hoguei hezkuntza zentro baino gehiagok lan-sare bat osatzen dute, non sistema honen finkatzeari eta garapenari erreferentzia egiten dioten helburuak ezartzen diren. Ikerketa lan honetan ikasleen kalifikazio akademikoak eta irakasleek Amara Berri Sistemaren gainean duten pertzepzioa ageri dira. Horrela, Amara Berri Sistemak eskolari eta bertako kideei dakarkien onurak anitzak direla eta egiaztaturik daudela baieztatzen dugu.

*Amara Berri Sistema, Eskola Berria, Berrikuntza, Sistema globalizatzailea, Lehen Hezkuntza*

El Sistema Amara Berri, integrado en el movimiento de la "Escuela Nueva", albergado por el cambio del sistema educativo que tuvo lugar en el siglo XX, es un movimiento relevante y muy innovador. Desde el deseo de que mejore la calidad de la enseñanza, más de veinte centros educativos forman una red de trabajo en común, en la que se plantean objetivos que ayudan al afianzamiento y desarrollo del sistema. En esta investigación y para confirmar el éxito y la eficacia académica de dicho sistema, se muestran las calificaciones académicas de los alumnos y la percepción de los docentes sobre el Sistema Amara Berri. De esta manera, constatamos que los beneficios que aporta el Sistema Amara Berri a la escuela y a sus integrantes son plurales y que están comprobados.

*Sistema Amara Berri, Escuela Nueva, Innovación, Sistema globalizador, Educación Primaria*

Amara Berri System, integrated in the movement of the "New School", hosted by the change in the educational system that took place in the twentieth century, is a relevant and very innovative movement. From the desire to improve the quality of teaching, more than twenty schools form a network of working together, which aims to help the strengthening and development of the system arise. In this research and to confirm the success and academic effectiveness of the system, students' academic qualifications and the perception of teachers on Amara Berri system are shown. Thus, we find that the benefits of the Amara Berri System for the school and its members are plural and are checked.

*Amara Berri System, New School, Innovation, Globalizing system, Primary Education*

## Sarrera

XX. mendetik hona hezkuntza sistemak aldaketa handiak jasan izan ditu. Hezkuntza sistema magistrala albo batera uzteko bidean gaude gaur egun, berrikuntzari ateak irekiz. Denbora guzti honetan gizartean egon diren aldaketek baldintzatu eta probokatu dute hezkuntzan egondako aldaketa. Sistemak aldatzen ari dira, metodoak, irakaslearen papera desberdina da ere, ...

Gizartean agerturiko azkeneko aldaketa nabarientakoa IKTen agerpena da, hezkuntza munduan ere gogorki sartu direnak. Berrikuntza plan eta sistema orotan dute presentzia elementu eta programa hauek; eta badirudi gaur eguneko gizartearen begiradapean, IKTen erabilera berrikuntzaren sinonimo dela.

Baina ez da horrela. IKTen erabilerak eskolak emateko orduan suposatzen du aldaketa, antolamendurako ere tresna paregabea izan daitekeelarik, baina ez dira berrikuntza bakarra. Gaur eguneko eskola kontzeptua aldatzen duten ideiak eta planteamenduak agertzen ari dira, eta baita aurrera eramaten ere, eskolak emateko moduz gain eskola bera ere eraldatu eta transformatzen dutenak. Proiektuko metodoa, Montessori metodoa, Txanela proiektua, ... sistema aldaketen adibide batzuk dira.

Metodo berri hauetan hezkuntzaren ideia bera ere desberdina da, helburu globalagoak ditu eta ikasleaz duten pertzepzio eta ikuskera orokorragoa da. Akademikoki hazi baino, akademikoki eta pertsonalki hazi eta hezte da helburua. Badago Euskal Herrian sistema hauen ondoan, paraleloki sortu zena: Amara Berri Sistema.

Irakaskuntza eta ikerketa lanean dabilen talde zabal batek darama aurrera honen aplikazioa eta garapena. Eskolaren antolamendua, ikasleen egoera eta irakasleena ere kontuan hartuz, ikas-irakas prozesuan parte hartzen duen edonoren jardutea aberasten duen sistema diseinatu dute. Nahiz eta hasiera batean gutxi zabaldu izan zen, gaur egun ezagunagoa da eta oso ondo baloratua dago eskoletan, eta baita eskolaz kanpoko instituzioetan ere.

Ikasketa prozesua egoera itxi batean gertatu eta ikaslea gizarterako prestatzeari uko egin eta sistema irekia planteatzen dute, gizartearen parte dena eta bere baitan ere

gizartearen isla dena; horrela, ikasketak ez datza gizarterako prestatzean, baizik eta gizartean murgilduta igeri egiten ikastean.

*Aitzitik, aurrerapen globaleko sistema irekia taldean garatzeak beharrezko egiten ditu elementu guztiak, eta bakoitzari denbora jakin bat egokitzen dio. Hemen aurkezten ari naizen sistema irekiak, emaitza zehatz batez haratago, prozesu harmoniko bat ahalbideratzen du; prozesu horretan ez dago arlo nagusirik edo besteen ginetik baloratzen denik: denak batera garatzen dira.*

*Pedagogia irekia subjektu bizitik gertuago dago pedagogia itxi, estandarizatuegi eta betiere kuantitatiboak direnak baino.” (Anaut, 2004:24)*

Amara Berri Sistemarekin ikasleek eskolan eta honetatik kanpo ere jarduten ikasten dute, egoeretara moldatzen, errekurtsioak topatzen, haien ideia eta iritziak defendatzen eta taldean aritzen.

Hau guztia dela eta, berrikuntza bideei (direnak izanda) indarra eta laguntza eman behar zaizkie, hezkuntza gaur egungo egoerara moldatzen baitute eta sistema eguneratzen.

Baina, benetan al dira egokiak eta eragingarriak sistema hauek? Amara Berri Sistema sistema tradizionalarengandik hain urrun egonda, emaitza berak lortzen al dira? Gure seme alabentzat hezkuntza globala eskaintzen al du?

Hauek dira sarritan agertzen diren galderak, sistema ezagutzen ez dutenek formulatzen dituztenak. Askotan ezezaguna denak edo desberdina denak beldurtu egiten gaitu, ez gara fio, baina ikerketa lan honetan topatuko dugu beldurrik izan behar ez dugunaren konstantzia. Lan honen bitartez ziurtatuko ditugu Amara Berri Sistemaren baliagarritasuna eta baita arrakasta akademikoa ere.

## 1. Esparru teorikoa: Eskola Berria

Eskola Aktibo edo Eskola Berriaren mugimendua XIX mendearen azken urteetan hasi zen, Europa eta beste herrialde batzuetan, hezkuntza tradizionalaren aurka eginez. Haur izatearen esanahia eta balioa azpimarratu nahi zen, ikasleen momentuko interesetan zentratuz eta haien aktibitatea, askatasuna eta autonomia indartuz. Honi ekarpen handienak egin zizkieten autoreak Juan Jacobo Rousseau (1712-1778), León Tolstoi (1828-1910), Juan Enrique Pestalozzi (1746-1827), Federico Froebel (1782-1852), María Montessori (1870-1952), Ovide Decroly (1871-1932), Adolphe Ferrière (1879-1960), Jean Piaget (1896-1980) eta beste horrenbeste izan ziren; bai ikasle eta baita hezkuntzaz zuten kontzeptua zela eta.

Eskola Berriaren printzipio orokorrak hurrengokoak dira:

- *Respeto a la personalidad del educando o el reconocimiento de que éste debe disponer de libertad.*
- *Admisión de la comprensión funcional de la acción educativa desde el punto de vista individual y social.*
- *La comprensión del aprendizaje simbólico en situaciones de la vida social.*
- *Se asume la variabilidad de las características de cada individuo, de acuerdo con la cultura familiar la pertenencia a grupos de vecindario, de trabajo, de recreación y religiosa.* (Filho, 1964)

Horrela, Eskola Berriaren mugimenduarenpean hainbat metodo desberdin garatu ziren, nahiz eta printzipioetan komunak izan: Montessori metodoa, Decroly metodoa, Dewey-en proiektu metodoa, Cousinet-en taldekako lan askearen metodoa eta Freineten metodoak. (Narvaez, 2006)

### 1.1. Amara Berri sistema

Eskola Berriaren mugimenduaren barnean, 1972n “Durangoko esperientzia” hezkuntzarako metodologia berritzaile bat antolatu eta planteatzen hasi zen. “La aplicación práctica de unos métodos concretos, fruto de unos planteamientos y principios pedagógicos supuso una revolución. Abrir las compuertas de la energía vital

de los niños y dejarse arrastrar por las torrenciales aguas sin tratar de contenerlas, ni canalizarlas (...)” (Equipo de Durango, 1979:40).

Gaur egun, eta mugimendu horri jarraipena emanez, Donostiako Amara Berri ikastetxe publikoko ikertzaileek eta sare bereko beste batzuek “*globalizazioa sistema ireki baten barruko bizi-prozesu gisa*” (Anaut, 2006:23) inbestigazioa daramate aurrera, gaur egun, laburtzearen, Amara Berri Sistema esaten zaiona. Orduandik hona Loli Anautek eta bere taldeak ikerketan jarraitu du eta bere metodologia jada 20 zentro baino gehiagotan aplikatzen da (Haur eta Lehen Hezkuntzan), bai Euskal Herrian eta baita honetatik kanpo ere (Katalunian, Kanariar irletan, ...), hezkuntza-sare bat osatuz.

Mugimendu honen barruan hainbat autore eta aurrekarien ideiak batzen dira:

*Sistema honetan autore, metodo edo teoria askorekin bat datozen puntuak egon daitezten. Adibidez, testuinguru egonkorraz hitz egiterakoan, Bruner etortzen zait gogora, curriculum kiribilagatik, nahiz eta ez izan guk erabiltzen dugun testuinguru-mota. Ausubelen ikaskuntza esanguratsuan edo Vigostsiyren garapen hurbileko eremuan edo garapen potentzialaren eremuan pentsatzen badut, badakit bi kontzeptuak metodologia honetan badirela, nahiz eta ez ditugun hitz horiekin adierazten. Piagetek dio ez direla sortzen ezagutzarik, banakako jarduera mental konstruktiborik ez badago, eta horrek berehala gure jarduera-printzipiora garamatza. Eta testuinguru antolamendu fisiko gisa hartzeak neurri batean Faure Metodoaren “txokoak” gogorarazten dizkit. Egia esan, bada biak nahasten dituenik, baina desberdinak dira: “txoko” horiek jakintza-arlo edo irakasgaika bereizten ziren, eta kasu honetan, berriz, irakasgaiak erlazionatzen dituen bizi-jarduerak markatzen du antolamendu fisiko hori. Ikasleek erabiltzen dituzten eskema edo teknika kognitiboak erreparatzen badiegu, berriz, Gowin edo Novak etorriko zaizkigu gogora. Eta hizkuntzaren alderdiek Ignasi Vila gogorarazten didate. Barkatu, badirudi ezin dudala gelditu. Eta harreman sozialei kontzeptu-eskemen garapenerako halako garrantzia ematen diegunean, Cesar Collen idatzietan pentsatzen dut, (...) beste hainbat autore etorriko litzaizkidake gogora: Alvaro Marchesi, Isabel Solé eta nire ustez une hartan irakasleen prestakuntzan hain garrantzitsua izan zen Luis del Carmen. (Anaut, 2004: 35-36)*

Horrela, Amara Berri sistemako printzipio metodologikoei Eskola Berrikoak jasotzen dituzte, beste era batera planteatuz (1. eranskina):

ESKOLA AKTIBOA	GEHITURIKOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Indibidualizazio printzipioa</li> <li>• Sozializazio printzipioa</li> <li>• Askatasun printzipioa</li> <li>• Jarduera printzipioa</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sormen printzipioa</li> <li>• Globalizazio printzipioa</li> <li>• Normalizazio printzipioa</li> </ul>

1. taula. Printzipio metodologikoak.

Amara Berri sistemako printzipioak eta ezaugarri metodologikoak, baita egiten diren programazio eta jarduera orok, ikaslearen inguruan duten kontzepzioan oinarritzen dira (2. eranskina). Honako hauek dira sistemaren funts eta oinarri diren ezaugarri metodologikoak:

**ANTOLAMENDUA:** Sistemaren beraren “antolamendu-egitura esku-hartzeko estrategia giltzarria da” (Anaut, 2004:79) eta, horrela, “kudeaketa ikastetxeko irakasle guztiei dagokie. Irakasleek taldean lan egiten dute, eta bilerak prestakuntza-esparrutzat hartzen dituzte: paraleloak, sektoreak, zikloak, mintegiak, arreta bereziko zerbitzua (ABZ), bilera pedagogikoak, klaustroak, ikastetxeentzako aholkularitza” ... (Anaut, 2004:81). Modu honetan, “etapen espezifikotasunari eta etapen arteko koordinazioari eusten zaio” (Anaut, 2004:80). Gainera, “familiekin egiten diren bilerak ere prestatzeko bitarteko eta esparrutzat hartzen dira” (Anaut, 2004:81).

**CURRICULUMA:** Curriculumean hiru fase bereizten dira: “testuingurua eta haren elementuak, jarduera bakoitzaren edukiak, helburuak eta muina eta esku-hartzea, bilakaera eta ebaluazioa” (Anaut, 2004:80). “Testuinguru sozial, egonkor eta osagarrien bidez eta diziplina anitzeko ikuspegiarekin programatzen da. Horregatik, irakasgaiak erlazonaturik daude, bat nagusitzen bada ere.” (Anaut, 2004:80)

**ZIKLO PROGRAMA eta ADIN NAHASTEIA:** Ikasle taldeak zikloka multzokatzen dira, sexu, adin, kultura eta beste hainbat elementu desberdinekin kontaktuan jarriz. Ikasle bakoitzak bere mailan egiten du lan, bere erritmoa jarraituz. Maila handiagokoek baxuagokoei laguntzen diete kontestu bakoitzean, eta kontestu aldaketa edo kurtso aldaketa bakoitza “lagun berriak egiteko, liderrak aldatzeko eta aurreko klixe edo estereotipoak aldatzeko unea da” (Anaut, 2004:259). Horrela, helburuak eta



curriculumeko puntuak ziklo bukaerarako planteatzen dira, ikasle bakoitzak erritmo desberdinean beteko dituelarik.

*IRAKASLE ANITZ eta DEPARTAMENTU ESPEZIALIZATUAK:* Irakasle bakoitza departamentu baten edo biren arduraduna izango da, honetan espezializatua egongo delarik. Horrela, ikasleak departamentu desberdinetatik igarotzen direnean irakasle desberdinekin dute kontaktua. “La pluralidad de formas de ser, de intervenir, de ofrecer diferentes puntos de vista, distintas perspectivas de enfoque, distintas sensibilidades o apreciaciones, enriquece el desarrollo de la personalidad y de las relaciones sociales del alumnado y del profesorado.” (Martin, 2010:60) Ebaluazioari dagokionez, azpimarratzekoa da “posibilita que se pueda hacer un seguimiento del alumnado más exhaustivo y más contrastado.” (Martin, 2007:60)

“La *acción tutorial* se hace en todo momento y desde todo el profesorado (...) Sin embargo tanto el profesorado, el alumnado y sus familias saben que hay un referente que coordina todas estas acciones, el tutor o la tutora”. (Martin, 2007:60)

*ANIZTASUNA eta DESBERDINTASUNA:* Bai ikasle eta baita irakasleen artean ere desberdintasuna eta aniztasuna bertute eta elementu aberasgarritzat hartzen da. “Desberdintasun handiez edo handicap-*ez* (sindromeak, urritasun fisikoak, mugimendu urritasunak...) baino askoz haratago doa. Gure izaera, gure maniak, gure trebetasunak etab. ditugu, eta horrek guztiak izaki berdingabe egiten gaitu.” (Anaut, 2004:269) Horren kontzientziak kontzeptu- eta jarrera-eskema berriak sorrarazten ditu.

*JOLASA:* Jolasa testuinguru bakoitzaren oinarria da, “teniendo en cuenta que el alumnado imita el mundo del adulto, el profesorado diseña la actividad-juego, es decir, el contexto con una intencionalidad y como un auténtico medio de aprendizaje en el que cada persona es acogida desde el momento en que se encuentra y desde su forma de ser.” (Martin, 2007:59) Jolasaren “helburua ez da motibatzea, gizabanako bakoitzak baditu bere motibazioak-eta. Jolasa interes horiekin uztartzea eta jolasari esker interes horiek azalratzea dira giltzarriak.” (Anaut, 2004:253). Gainera, esku-harmenerako eta prozesuaren ebaluaziorako tresna paregabea da: “el juego permite expresar el mundo

interior y afectivo y por lo tanto se convierte en un medio de seguimiento para el profesorado que permite conocer mejor al alumnado.” (Martin, 2007:59)

*ZERTARAKOA*: “Hay contextos que tienen el “para qué”, es decir, el móvil y el fin en sí mismos; otros en la salida exterior, la radio, la prensa, la televisión, Internet, la exposición y los espectáculos.” (Martin, 2007:59) Jarduera guztien zertarakoak “auto-exijentzia eta ondo egiteko gogoia sortzen du.” (Anaut, 2004:256)

*KRITIKA*: Edozein lan irteera ematen zaionean, gelakideek iritzia ematen dute, aurkeztu zaien edo ikusi berri duten lanaren inguruan. Kritika jasotzen duenari hainbat aspektu garatzen laguntzen dio, “bere mugak onartzea, bere gaitasunez jabetzea, bere burua barrutik ikusten eta besteen aurrean azaltzen ikastea” (Anaut, 2004:267) eta kritika egiten duenari ere, “besteen lekuan jartzea eta desberdintasunak onartzen ikastea” (Anaut, 2004:267). Horrela, garapen akademikorako (saiatzea bultzatzen du) eta hazkunde pertsonalerako faktore garrantzitsua da.

*EBALUAZIOA*: “Todo proceso de evaluación es *para avanzar* y no tanto para medir. Es un marco de formación y de crecimiento personal (...) y forma parte de la reflexión sobre la práctica y la consciencia de cada persona sobre sus avances y dificultades. Este seguimiento se hace *atendiendo a la globalidad* del individuo.” (Martin, 2007:58)

*LAN METODOA*: “Utilizamos el “método de trabajo” que propone actividades que están en progresión y posibilitan la autonomía y el trabajo individual o en grupo en busca de ambientes cooperativos.” (Martin, 2010:175)

*MEDIATEKA*: Eskola Berriaren mugimenduaren aspekturik nabarmenetakoena liburuarekin apurtzea da, eta hala egiten da Amara Berri sisteman ere: “es una alternativa pedagógica, (...) en cuanto al material escolar y a los libros de texto, debe ser alternativa, fundamentándose en las ideas freinetianas y posteriormente en el constructivismo de Piaget” (Davila, 2005:100)

Horregatik, mediateka edozein kontestutan erabiltzeko eta esplotatzeko tresna da. Liburutegi, IKT eta dauden baliabide guztien bilgunea da eta lan anitzerako ikasle orok erabiliko duena.

*IKASLE ANTOLAMENDUA:* Ikasle-antolamenduak (IA) “batzar eta zerbitzuen bidez, adin guztietako ikasleak jartzen ditu harremanetan” (Anaut, 2004:81). Horretarako, gela bakoitzean daude delegatu orokorrak, hedabideetakoak, materialekoak, akomodadoreak, eta hauen arteko bilerek eta gela bakoitzekoek eskolaren funtzionamendua erregulatzen dute.

*IKASGELAZ KANPOKO JARDUERAK:* “Jarduera osagarriak: kultura- eta kirol-jarduerak, jantokiak eta garraioa ere hezkuntzan esku hartzeko esparrutzat jotzen dira” (Anaut, 2004:81), ikasleen izaera eta garapen globala barnebiltzen baitute.

Gainera, Amara Berri sistema sare bat den heinean eta “irakaskuntzaren kalitatea hobetu nahirik, ohiko bihurtu da ikastetxeak beste profesionalei atek zabaltzea” (Anaut, 2004:81) eta beste zentro eta irakasleentzat prestakuntza-plana eskaintzea, metodologia hau ezagutu eta, horrela bideratzekotan, beste zentro batean ezartzen laguntzeko.

Ezaugarri guzti hauek Amara Berri sistemaren funtsa biltzen dute, ikaslearen garapen oso eta globala sustatzen duena. Hau guztia ikusirik argi geratzen da Amara Berri sistema ez dela metodo berri soil bat, baizik eta laneko sistema oso bat; diziplina arteko sistema bat, kontzeptuala, antolakuntza eta plangintzako, analisia eta hausnarketa egiteko, eta erabakiak hartzeko sistema bat. Sistema irekia esaten zaio, bititza bera ere irekia delako, eta honen isla delako; elementu berriak ere bereganatzeko gai delako, elkarrekintza berriak sortuz bere antolakuntza sistematikoa galdu gabe.”

## 2. Metodologia

### 2.1. Helburuak

Ikerketa lan honen helburu nagusia Amara Berri Sistema baliagarria eta arrakastatsua dela konprobatzea da. Hauek dira helburu zehatzak:


1. Amara Berri Sistemak ikaslearen garapen globala (ez soilik akademikoa) sustatzen duela ikustea.
2. Ebaluazio eta kalifikazioetan beste edozein sistema edo metodologiaren pare jartzea.
3. Sistema honetan gehien potentziatzen edo garatzen diren alorrak azpimarratzea.

### 2.2. Hipotesiak

1. Amara Berri Sistemaren bitartez ikaslearen garapen akademikoa eta baita soziala ere ematen da.
2. Amara Berri Sistematik datozen ikasleak DBHko ikasketetara igarotzean, kalifikazio eta irakasleen pertzepzio aldetik ere, gainerako ikasleen parean daude.
3. Sistema egokia da Lehen Hezkuntzako etapako edozein ikaslerentzat, nolabaiteko laguntza edo errefortzua behar dutenentzat ere bai (Heziketa Berezia).
4. Ikasketen maila ona da eta arlo guztietan maila bera mantentzen da.

### 2.3. Lagina


Ikerketa hau Amara Berri sistemako ikasleekin kontaktuan dauden irakasleei egiteko pentsatua dago, eta horrela, esparru desberdineko irakasleei eskatu zaie kolaborazioa.




Irakasle horiek Amara Berri sistemako berako irakasleak dira, LHko hirugarren zikloan jarduten dutenak (Gorlizko Ikastetxea publikoa), Amara Berritik datozen ikasleak aritzen diren institutuko irakasleak (I.E.S. Uribe Kosta B.H.I.) eta baita batean zein bestean aritzen diren espezialistak (PT, HIPI, kontsultorea, ...).

1. grafikoa. Irakasleen jatorria.

Irakasle hauetatik batzuek urte ugari daramatzate irakaskuntzan eta beste batzuk ez horrenbeste (2. grafikoan azaldu bezala). Honetaz gain, irakasle bakoitzak zentro berean zenbat urte daramatzen jakitea interesgarria da, perfil honetako ikasleekin zenbat denbora daramaten islatuko duelako.




2. grafikoa. Esperientzia irakaskuntzan.



3. Grafikoa. Esperientzia zentro berean.

Bestalde, kalifikazioak eta maila akademikoko balioak ezagutzeko beste lagin bat erabili izan da, irakasleen iritzietatik at, ikasleen beraien ezaugarriak ezagutzeko, hauek baitira, azken finean ikasketa prozesuaren protagonista. Honetarako Amara Berri Sistemako ikasleak eta beste sistemetako ikasleak nahasten diren Derrigorrezko



3. grafikoa. DBH1 mailako ikasleen jatorria.

Bigarren Hezkuntzako zentzora jo dugu, eta bertan etapa horretako lehenengo zikloko lehenengo mailan (DBH1) egondako ikasleen kalifikazioak jaso ditugu (2012-2013 ikasturtean). Maila hau aztertu dugu zuzenean Amara Berri Sistematik datozenak direlako, eta, horrela, sistemaren eragina argi ikusiko delako.

## 2.4. Datuak biltzeko eta aztertzeko tresna

Datu bilketarako bi tresna nagusi aplikatu izan dira: irakasleentzat galdetegia eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailako ikasleen kalifikazioen jasotzea.

- Galdetegia: (3. eranskina)

Irakasle desberdini (Lehen Hezkuntzako irakasleei, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei eta Hezkuntza Bereziko irakasleei) entregatu zaie. Galdetegi hau betetzea boluntarioa eta anonimoa da, eskatzen den datu bakarra hezkuntzan eta zentro horretan izandako lan-denbora izanik. Horrela, irakasleen prestutasuna eta erosotasuna bilatzen da, izenik eskatu gabe zintzoak izateko inolako arazorik izango ez dutela suposatuz.

Galdetegi honek bi atal nagusi ditu: galdera irekia eta koadroa. Koadroan item zehatz batzuk planteatzen dira, ikasketa prozesuaren hainbat aspekturi erreferentzia egiten diotenak: hizkuntza gaitasuna, gaitasun zientifiko eta matematikoa, lan jarrera, alderdi soziala, ... eta hauek batetik bosterako eskala batean sailkatzeko eskatuko zaie, beti ere ikasle taldeari erreferentzia eginez, kasu pertsonaletan murgildu gabe. Galdera irekian irakasleen iritzi edo komentario libreak adierazteko tartea uzten da, boluntarioki erantzuteko atala delarik.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo mailako ikasleen kalifikazioen jasotzea. (4. eranskina)

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentroarekin (I.E.S. Uribe Kosta B.H.I.) kontaktuan jarrita, hitzordua ezarri eta aurreko ikasturteko aktak (2012-2013) zabaldu zituzten Amara Berri Sistemari jatorria zuten ikasleen datuak jaso ahal izateko. Horretarako aurtengo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren mailako ikasleen zerrenda jatorrizko zentroaren arabera sailkatu eta aktetan ikasle ikasle datuak jaso nituen.

### 3. Lanaren garapena

Ikerketa honen denborak definitzean, duela 10 urte baino gehiago hasi zela esan genezake. Zergatik? Amara Berri Sistema ezarrita duen zentro batean ikasia naizelako, eta hasieratik erakarri eta interesatu izan nauelako sistemaren funtzionamendua ezagutzeak. Horrela izanda, dokumentatu eta gaia landu izan dut, irakasleekin elkarriketatu, ... guztia ondo ulertu izan dudanean arte.

Eskola garaiaz ditudan oroitzapenak politak dira oso, pozik nindoan gelara, ondo pasatzen nuen bertan ikasiz; baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaro eta bat batean metodologia tradizionalerako zentro batean topatzeak eskema guztiak apurtu zituzkidan. Are gehiago, Batxilergoa amaituta unibertsitateera heltzean magisteritzako eskolen sistema oso deigarria suertatu zitzaidan: ume garaitik gogoratzen dudanean interesa, aktibotasuna, mugimendua, ilusioa, ... ez zen ageri eta ikasketekin ez nuen horrenbeste gozatzen. Gainera, unibertsitatean bertan, Amara Berri Sistema aipatu eta entzuna bai, baina ezaguna ez zela ikustean asko harritu nintzen.

Horregatik aukeratu dut gai hau Gradu Amaierako Lanerako, bere tokia eta bere indarra behar duen sistema dela baiteritzot.


Haxe egiteko Amara Berri Sistemako eskoletako irakasleekin edo hauetan jardundakoekin batu naiz, dokumentazioa erraztu didate, nondik jo dezakedan adierazi, ... eta momenturo agertu duten prestutasuna eskergarria da oso.

Gauzak horrela, ikerketa burutzeko irakasle horiekin beraiekin lan egin dut, eta baita I.E.S. Uribe Kosta B.H.I. zentroko irakasle eta zuzendariarekin, hauek ere kolaborazio handia eskaini izan didatelarik. Irakasleen iritzia modu anonimoan jaso izan denez ez da inolako arazorik egon, baina, guztion ziurtasunerako, DBH zentroan eginiko datu bilketa (kalifikazioen kontsulta) burutzeko hitzarmen adostu bat zintu genuen (5. eranskina), konformetasuna adierazteko.

Behin datu guztiak jasota izan ditudanean, gustura eta ilusioz jardun dut hauen filtrazio eta antolamenduan. Gogoz eta nire interesak defendatu eta Amara Berri Sistemaren alde ere lan egiten ari naizela sentituz; Lehen Hezkuntzako eskoletan sentitzen nuen ilusio berdinez.

#### 4. Emaitzak eta ondorioak


##### 4.1. Emaitzak



5. grafikoa. Galdetegiaren emaitzen batz bestekoa espezialitateka.

Grafiko orokorrean erraz ikus daiteke bai LHko irakasle, DBHko irakasle eta irakasle espezialisten aldetik 4aren inguruko balorazioa ematen zaiola Amara Berri Sistemari bastez beste (balio orokorra: 4,2) 10 oinarriko eskala batean 8,4 izango litzatekeena.


Orokorrean baino, goazen item bakoitza indibidualki aztertzeraz:



6. grafikoa. Ideiak ulertu, eskema antolatu.


**Irakurritako testuen ideia nagusiak ulertu eta eskema batean antolatzeko gai da** itema aztertzean DBHko irakasleek hobeto baloratzen dutela ikus daiteke, baina batz besteko balioa, hala ere, positibotzat har dezakegu.






7. grafikoa. Galdetzeko edo bilatzeko errekurtsuak.

**Irakurritako testuetan ulertzen ez duena galdetzeko edo bilatzeko errekurtsuak dituen** edo ez aztertzean, LHko irakasleek eman diote kalifikazio altuena. Seguraski metodologiak honetarako bidea erraztuko duelako da eta DBHko ikasketetan gelako antolamenduak honetarako aukera gutxiago ematen duela azpimarratu beharra dago.




8. grafikoa. Koherentzia eta kohesioa.

**Testu koherente eta kohesionatuak sortzen dituen** edo ez galdetu izan zaienean deigarria da Hezkuntza Bereziko irakasleek adierazitako kalifikazio altua. Bestalde, ikasleen garapen kognitiboaren maila kontuan harturik kalifikazio gorenera ez heltzea justifikagarria da.




9. grafikoa. Iritzia eta ideiak taldean adierazi.

**Bere iritzia eta ideiak taldearen aurrean adierazteko gaitasunaren** gainean esateko dago Amara Berri Sistemari asko lantzen den gaitasuna dela, eta grafikok nabarmen ikusten dela. Hala ere, DBH eta HBko irakasleek emandako kalifikazio altua oso positiboa da.




10. grafikoa. Testu moten egiturak.

Aztertu izan denean **testu mota bakoitzaren egitura eta ezaugarriak errespetatzen dituen** ikusi da DBHn hobeto baloratu dela LHn baino. Ikasleen garapena aurrera joan hala hobekuntza nabaritzea logikoa eta naturala denez, horrelako iguera bat ikustea espero zitekeen.




11. grafikoa. Sormena eta kreatibitatea.

**Testuak sortzerako orduan sormena eta kreatibitatea adierazten du** itemaz galdetzean Amara Berri Sistema agertzen da berriro balio gorenarekin, sistema honetan sormena sustatzeko aukera handiak baitaude, baina DBHn ere 4tik gorako balioa duela azpimarragarri suertatzen da.




12. grafikoa. Kontzeptu eta ideia abstraktuak.

Gainera, gaitasun matematikoei erreferentzia eginez **kontzeptu eta ideia abstraktuak ulertzeko eta adierazteko gai da** itema planteaturikoan zenbakizko balioak hain altuak ez direla begi-bistakoa da, baina deigarria suertatu da ere zientzia eta matematikako irakasleak izan direla hauei balio handiena eman diotenak (bataz bestekoa egitean balioa jaitsi den arren).




13. grafikoa. Motibazioa eta lan jarrera egokia.

**Jarduera eta lanen aurrean motibazioa eta lan jarrera egokia azaltzen duen** edo ez galdetu izan da, eta oso balio altuak agertu dira; bai LHn, bai DBHn eta baita HBko ikasleei dagokienez ere.




14. grafikoa. Parte hartze aktiboa.

Kontzeptu akademiko hutsez kanpo **parte hartze aktiboa** oso baloratua da edozein metodologietan eta HBko ikasleengan zailtasunak ageri diren arren, balio altu eta esanguratsuak jaso dira.




15. grafikoa. Autonomia eta errekurtsuak.

Bestalde, ikasleriak lanerako orduan autonomia eta traben aurrean beste bide batzuk topatzeko gaitasuna agertzen duen ikusita, esan dezakegu ikasleak, globalki, (adina edo kondizioa kontuan hartu gabe,) kapazak direla autonomoki aurrera egiteko.




16. grafikoa. Taldearen aurrean hitz egitea.

Taldearen aurrean hitz egiteko gaitasuna eta trebezia hoberen kalifikatuen artean dago, HBko ikasleek ere 4 puntuko barrera gainditzen dutelarik. Honek bizitza akademikorako eta sozialerako izango dituen onurak kontuan hartzekoak dira.




17. grafikoa. Argudioak eman eta arrazoitzea.

Aurrekoarekin batera, eztabaidetan argudioak ematea eta arrazoitzen jardutea garaturik duten gaitasuna da, nahiz eta balioak baxuagoak diren. Bataz bestekoari begira, orokorrean argudiatzen eta ideiak defendatzen dakiten ikasleak direla esan dezakegu.




18. grafikoa. Txukuntasuna eta ordena.

Burutzen dituen lanetan txukuntasuna eta ordena zaintzen duen aztertzean, desberdintasun nabaria agertu da HBko ikasleekiko, hauen zailtasunek edo lan-ohiturek laguntza espezifiko beharko luketelako; baina LHko eta DBHko ikasleen balorazioa bataz beste 4,27 izatea emaitza positiboa da oso.




19. grafikoa. Konstantzia eta ardura.

Lana burutzean konstantzia eta ardura nabari da. Lanak egunean eramaten ditu. Bataz besteko balioa beste item batzuetan baino baxuagoa den arren, emaitza onak direla esan dezakegu; konstantzia mantentzea ikasleriari gehien kosta dakioken elementuen artean dago eta LHko eta DBHko irakasleen pertzepzioak 4aren inguruan kokatzea oso adierazgarria da.




20. grafikoa. Interesa eta ardura.

Baita ere ikasketengatiko interesa eta ardura agertzen dituen aztertu da eta bertan irregulartasun handiagoa ageri da, traba gehien dituztenek interes gutxiago dutela ikusten da.




21. grafikoa. Talde lana.

Horretaz gain, talde lanean aritzeko gaitasuna eta trebeziak dituen ikertzean DBHko irakasleek nabarmen jotzen dute gora, beste ikasleekin konparatuz gaitasun hau garatuago dutela eta oso nabarmen ikusten dela baiteritzote.




22. grafikoa. Laguntza eskatu eta eskaini.

Oso ondo baloraturik ageri den beste aspektu bat kideei laguntza eskatu edo eskaintzearena da, talde lanaren jarraibide izan daitekeena. Amara Berri Sistemaren talde lanean eta etengabeko sozializazioan egoteak bestengandik eta besteengana laguntza jaso eta ematea normaltasun moduan ematen da, onura handiak ekarriz.



23. grafikoa. Kideekin erlazioak, integrazioa.


Eskola munduan berebizikoa den beste aspektu bat, **kideekin erlazio zuzenak eta errespetuzkoak izatea eta ondo integraturik egotea**, ondo kalifikatua izan da ere; orokorrean erlazio sano eta garbiak ematen direla ikusiz.




24. grafikoa. Irakasleekiko begirunea.

Eta, ikasleekin bezala, **irakasleekiko eta hezitzaileekiko begirunezko jarrerak** ere orokorrean oso positiboki agertu dira, ia 5eko kalifikazioa jasoaz.

Bigarren ikerketa ildoari jarraituz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentroan jasotako datuak kontuan izanik, hauek izan dira lorturiko emaitzak:




25. grafikoa: Amara Berri Sisteman promozionatuak.



26. grafikoa: Gainerako metodologietan promozionatuak.

Ikus daiteke Amara Berri Sistematik datozen ikasleen ehuneko handiagoa promozionatu dela gainerako metodologietatik datozenak baino. Promozionatu direnak 6,97ko bataz bestekoarekin eta ez direnak promozionatu 4,19ko bataz bestekoarekin.

Amara Berri Sistemako jatorria duten ikasleek lorturiko bataz bestekoak:




27. grafikoa: Amara Berri Sistemako ikasleen bataz besteko notak.

Bataz bestekoak kalkulaturik nabarmen deigarria da oso ondo kopurua, emaitza positiboak lortu direla ikusteko. Bestalde, esan beharra dago bataz besteko kalifikazioan gutxi lortzeak ez duela esan nahi kurtsoa gainditu gabe dagoenik, kasu batzuetan

bataz bestekoa 5etik beherakoa izanda ere, arlo konkretu batean kalifikazio eskasa lortu izanaren ondorio delako, eta ez ikasketa osoaren isla.

Arloz arloko bataz bestekoak:



4. grafikoa: Amara Berri Sistemako ikasleen bataz besteko nota arloka.

Arlo batzuk besteen gainerik ageri diren arren, arlo guztietako bataz bestekoa da 6 baino altuagoa da, eta bataz besteko orokorra 7tik oso hurbil dago, oso emaitza positiboa dena. Gainera, ikusten dugu bataz besteko kalifikaziorik altuena duten arloak (atzerriko hizkuntza eta matematika) zientzia eta letren sailekoak direla, bietako bat nagusitzen ez delarik.

## 4.2. Ondorioak

Emaitza hauek ikusita, orokorrean, Amara Berri Sistema sistema osotua eta emaitza onak ematen dituen dela esan daiteke. Naturala den modura, esparru batzuk beste batzuk baino garatuago ditu, baina Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Berezia eta baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen aldetik 4,2ko batz besteko kalifikazioa lortzea oso esanguratsua da.

Azpimarratzekoa da ere, bai irakasleek duten pertzepzioaren arabera eta baita DBHko lehenengo mailan lorturiko kalifikazioen arabera, **ikasleen garapen akademikoa osotua** dela, maila altuan garatuz hizkuntzei dagozkien gaitasunak, zientziei dagozkienak eta baita jarrerari dagozkienak ere. Hau egiaztatzeko, oso adierazgarriak dira Amara Berri Sistemako ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentroan lorturiko kalifikazioak; hauen batz bestekoak parekoak izanik, argi ikusten da esparru bakoitzaren garapena antzeko maila batean ematen dela, globaltasun eta osotasunean. Gainera, modatik gehien aldentzen diren bi arloak (kalifikazio altuagoa lortu dutelako) bata hizkuntza mintegikoa eta bestea zientzia mintegikoa izateak hipotesi hau berrezten du.

Bestalde, DBHko zentroko datuak ikusirik, Amara Berri Sistemako ikasleek beste zentro batzuetatik etorritako ikasleen **arrakasta akademikoa izateko probabilitate bera**, edo, apur bat altuagoa dutela argitu da. Honetan eragin zuzena izango du lanerako jarrerak, autonomiak, eta motibazioak. Izan ere, DBHko irakasleen esanetan Amara Berri Sistema jatorria duten ikasleak “lan egiteak ez ditu beldurtzen” (zentroan 16 urte daramatzen hezitzailea). “Orokorrean nahiko ikasle arduratsuak dira eta ondo lan egiten dute. Nahiz eta kalifikazioetan nota ezberdinak izan, jarrera aldetik egoten badakite eta nahiko autonomoak dira. (...) Teknologia berriekin ondo moldatzen dira eta kontzeptu teorikoak menperatu ez arren, praktikara eramateko kapaz dira.” (zentroan urte 1 daraman hezitzailea).

Argudio hauek zentroan urte ugari daramatzaten irakasleek ematean pisu handia eman behar diegu, hainbeste urtetan Amara Berri Sistemako ikasle hainbat eta hainbat ikasle ezagutu baitituzte, profila oso ondo ezagutzen dutelarik; bestalde, DBHko zentro honetan denbora urriagoa daraman irakasle baten iritziak ere bere pisua duela esan

beharra dago, duela gutxi beste zentro batzuetan jardunda, gainerako sistema eta metodologietako ikasleak ezagututa, sistema honetako ikasleen bereizgarriak identifikatzeko erraztasuna dutelako. Gauzak horrela, irakasle guztien iritziak bat datozela esan dezakegu: “ikasle horiek eskolako egunerokotasunean ziur eta zuhur jokatzeko dute. Ikasketa prozesua ondo onartua eta barneratua dute; horrela, orokorrean, erraz eta tentsio handiegirik gabe bizi dute eskola. Euren artean adiskide dira eta elkarri laguntzeko joera argia dute.” (zentro honetan 18 urte daramatzen hezitzailea) eta “portaera aldetik, klasean adi eta lanean egoteko kapazak dira eta azken bolada honetan ez da ohikoena” (zentroan urte 1 daraman hezitzailea) ziurtasunez baieztatzen baitute.

Honi gehitu beharra dago, motibazioa, inplikazioa, interesa eta autonomia aztertzen dituzten galdetegiko itemak aztertuz, 4aren inguruko edo honen gaitetiko kalifikazioa lortu dela.

Galdetegi hauetan ere ikusi da lan jarrera ez dela begi-bistakoa den aspektu bakarra, talde lana, ikasleen arteko erlazioak eta irakasleekin dituztenak ere oso baloratuak izan baitira. Hau ikusirik, Amara Berri Sistemaren ikasitako ikasleek **konpetentzia soziala** eskuratua dutela ondorioztatzen da, bai taldean lan egiterako orduan lorturiko emaitza onengatik eta baita beste ikasle eta irakasleekin dituzten kalitatezko erlazioengatik. Izan ere honi erreferentzia egiten dioten item guztien batz bestekoek 4a nabarmen gaititu dute, hobekien baloratuak izan direlarik. Zuzenean harremanen inguruan galdetu izan denean kalifikazio oso altuak lortu dira galdetuak izan diren hiru taldeen aldetik (Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Heziketa Bereziko irakasleak), oso esanguratsua suertatzen delarik. Bestalde, taldearen aurrean hitz egitean eta iritziak adieraztean ere kalifikazio altuak lortu dira, emaitza hauek ikasleen parte hartze altuarekin konbinatuz, ikasleek haien iritziak maiz eta ziurtasunez adierazten dituztela eta argudiatzen badakitela ondorioztatzen dugu. Guzti honekin batera, talde lanean ondo aritzen direla ikusiz, eztabaida eta argudiaketa horietan elkarri entzun eta gogoeta egiten dutela esan dezakegu, talde lanaren oinarri bezala ideia komunetara eta adostasunera heltzen baitira.



Ikasleek gaitasun akademiko eta sozialak garatzen dituztela konprobatuz, ziurtatzen dugu hazkunde globala bilatzen duen sistema dela Amara Berri Sistema, hazkunde akademikoa, soziala eta pertsonala bultzatzen dituen. Hazkunde globala era global batean bilatzen duena, taldean lan eginez eta talde horren barruan **ezaugarri desberdineko ikasle ugari** barnebilduz. Honen isla Hezkuntza Bereziko irakasleek sistemari emandako kalifikazioa (bataz beste 3,87, 10eko oinarrian 7,74 litzatekeena) dugu. Hezkuntza Sistemari integratzeko zailtasunak eta trabak izaten dituzten ikasleei begiratu hain emaitza ona lortzea oso esanguratsua eta positiboa da. Honek, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lorturiko kalifikazioek, erakusten dute zailtasunak dituzten ikasleek ere haien garapena izaten dutela. Horregatik, ikasle profila honentzat Amara Berri Sistemak eskaintzen duen ezaugarri positiboena bere izaera integratzailea da, bai indibidualizazio printzipioak eta baita globalizazio printzipioak defendatzen duten modura. Ikasle bakoitzari planteaturiko lanak pertsonalak eta bakoitzaren erritmo eta mailara egokituak izanik, hezkuntza premia bereziko ikasleek haien burua beste ikasleenen parean ikusten dute, haien zailtasunak ezagutu eta hobeto onartzera daramatzana. Amara Berri Sistemako zentroan 17 urtean zehar jardun den ikuskariaren hitzetan: “lana egokitua izan arren, taldeko lanetan aritzeko aukera dute. Aurkezpenak egiten dituzte besteek bezala, oso integratuta daude eguneroko dinamiketan. Haien zailtasunak ez dizkiete limitaziorik suposatzen, baina horrek ez du esan nahi kontzienteak ez direnik. Azken batez, hobetzeko beharretan edonor egon daitekeela ikusten dute.”

Hezkuntza Bereziko irakasleek ahalik eta gehien bilatzen duten ezaugarria da hau, ikasleek berari egokitutako lana egin ahal izatea modu integratu batean, bere burua taldetik kanpo ikusi gabe, eta sistema honek horretarako aukera handia ematen du. Azken batean, ikasle bakoitzak aurkezten duen lana pertsonala da, eta gainerako ikasleek kide guztien lanak (premia berezidunak direnenak eta ez direnenak ere) zerbait berri eta landu bezala jasotzen dituzte. Azken finean, aurkezpenetan eta beste ikasle lan prozesua ezagutzekoan, ikasle guztiek dute pertzepzio bera “ikasle bakoitzak alderdi baterako du erraztasuna eta beste baterako zailtasunak, ikasteak hauek onartu eta lantzean datza” (zentroan 17 urte daramatzan ikuskaria).

Hau guztia ikusita, ziurtasunez esan daiteke hipotesiak berretsi direla:

- 1- Amara Berri Sistemaren bitartez ikaslearen garapen akademikoa eta baita soziala ere ematen da.
- 2- Amara Berri Sistematik datozen ikasleak DBHko ikasketetara igarotzean, kalifikazio eta irakasleen pertzepzio aldetik ere, gainerako ikasleen parean daude.
- 3- Sistema egokia da Lehen Hezkuntzako etapako edozein ikaslerentzat, nolabaiteko laguntza edo errefortzua behar dutenentzat ere bai (Heziketa Berezia).
- 4- Ikasketen maila ona da eta arlo guztietan maila bera mantentzen da.

Hau guztiarekin, Amara Berri Sistemak bere printzipioek defendatzen dutena aplikatu eta errealitatera daramala ikusten da, ezarritako helburuak betez. Horrela, sistema berritzaile modura berretsia eta konprobatua geratzen da, baliagarritasuna eta arrakasta akademiko erreala duela ziurtaturik. Horrela, ikerketa honen helburu nagusia bete egiten da.

Amara Berri Sistema ikertzean ikusi da, trabaz beteriko bide baten ondoren, talde baten ilusioak eta lanak aurrera egin ahal izan duela, haien ideiak defendatuz eta planteamenduak justifikatu eta indartuz sistema berri, global, eraginkor eta aplikagarria sortzea lortuz. Sistema hori gero eta gehiago zabaldu da eta gero eta onespen handiagoa du.

“Bogotako sei urteko ume baten esaldia. Ume horrek Lehen Hezkuntzan hilabete gutxi batzuk ibili ostean esan zion bere amari: “Ama nik nahi dut eskolara astean behin joan, ze egun horretan ikas dezaket irakasten didaten guztia, eta gainontzeko egunak jolasteko behar ditut”. (Tonucci,2012:14). Amara Berri Sistemako planteamenduak ideia honekin bat egiten du, jolasaren bitartez eta ikasleen interes propioen bitartez ikaskuntza planteatzean. Horrela, ikaslek gogoz jasotzen duten eta emaitza positiboak ematen dituen sistema dela ziurtatua geratzen da. Hori dela eta, Amara Berri Sistemak printzipioei tinko helduz eta ikasleentzat esanguratsua den ikasketa bat bilatuz planteatzen dituen helburuak betetzen dituela berretsita geratzen da.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

Anaut, L. (2004). *Amara Berri sistemaren inguruan*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Davila Balsera, P. (2005). *La renovación pedagógica en el País Vasco (segunda mitad del siglo XX)*. Donostia: Universidad del País Vasco. Sarmiento, 9, (85-103) 2014-01-20an hartua, hemendik: <http://ruc.udc.es/handle/2183/7794>

Equipo de Durango. (1979). *La escuela que pudo ser*. Madrid: ZERO

Filho, L. (1964). *Introducción al estudio de la escuela nueva*. Buenos Aires: Editorial Kapelusz.

Martín González, E. (2010). Sistema Amara Berri. Un proyecto global para el desarrollo de competencias. *Participación Educativa*, volumen 15, 170-182. 2013-12-21ean hartua, hemendik: <http://www.mecd.gob.es/revista-cee/pdf/n15-martin-gonzalez.pdf>

Martín González, E. (2007). Sistema Amara Berri. Competencias para el desarrollo de un proyecto global. En Ávila Ruiz, R.M, López Atxurra, R. & Fernández de Larrea, E. (Ed.), *Las competencias profesionales para la enseñanza-aprendizaje de las Ciencias Sociales ante el reto europeo y la globalización* (55-70). Bilbao: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales. 2014-01-15ean hartua, hemendik: <http://www.ehu.es/documents/1530678/1576062/Parte201.pdf#page=55>

Narvaez, E. (2006). *Una mirada a la escuela nueva*. Venezuela, Caracas: Educere, Artículos arbitrados 2014-01-18an hartua, hemendik: <http://www.saber.ula.ve/handle/123456789/20126>

Tonucci, F. (2012) Francesco Tonucci y la escuela que queremos. *Investigacion en la escuela*, volumen 77, 14.

## ERANSKINAK

## 1. Eranskina: Printzipio metodologikoak

Printzipioak izaera eta jokabidea gidatzen duten ideiak izanda, printzipio metodologikoek eskolaren jarduteko modua baldintzatzen duten ideiak eta ikuspegia definitzen dute. Hori dela eta ez dira soilik ikasleei begira ezarritako printzipioak, irakasleriari eta eskolako parte-hartzaile guztiei aplikaturikoak baizik. Amara Berri sistemako printzipioak hurrengokoak dira:

- Indibidualizazio printzipioa
- Sozializazio printzipioa
- Jarduera printzipioa
- Sormen printzipioa
- Askatasun printzipioa
- Globalizazio printzipioa
- Normalizazio printzipioa

Printzipio hauek guztiak "Eskola Berri"tik hartuta daude, baina berrinterpretatu eta birplanteatu dituzte. Sistema honen oinarria ikaslearen ikuskera izanik, printzipioak honetara moldatuak daude, beti ere hauek bizitzara bideratuta agertzen direlarik.

### Indibidualizazio printzipioa:

Printzipio honek ikasle bakoitza izaki bakar modura hartzen du; erritmo, maila, interes, gaitasun eta egoera pertsonal propioa duena. Horrela, antolamendu-egitura zehatz bat bultzatzen da ikasleari lan egiteko modu eta aukera pertsonalizatua eskaintzen diona.

Pertsona oro gara desberdinak, izaki globalak gara:

- Norberak kontzeptu- eta emozio-eskema bat dugu.
- Norberak bere potentziala dugu.
- Bakoitzak ikasteko modu bat dugu.

- Adin, interes eta motibazio zehatzak ditugu.
- Bakoitzak bere izaera eta nortasuna dugu.

Honek ikaslea gizabanako bakar eta egoerari lotua bezala ikustarazten digu, berarekin esku hartzea ere indibidualizatua eta pertsonalizatua izan beharko delarik. Horrela, ikasle guztiei dagozkien helburu komunak bakoitzari modu indibidualizatuan aplikatzen zaizkio, bere jarraipena eta garapena azterturik, eskola-porrotaren ideia alde batera uzten delarik. Modu honetan, ebaluazioa ere banakakoa da; estandarraz edo taldeaz haratago doan eta ikasle bakoitza bere nortasun eta potentzialaren arabera aztertzen duen ebaluazio sistema eratuz.

### Sozializazio printzipioa

Ikaslea izaki sozial kontsideratzen da, bere jardutea eta izatea sozietate edo taldearen mugen barruan burutzen duelako, eta ez honen menpe. Talde-egitura horren barruan, eta baita gizartean ere, elkarrekintza etengabekoa denez, metodologia honetako txokoen bidezko antolakuntzak ikasleen elkarreragitea ahalbideratzen du, taldekatze desberdinek haxe aberasten dutelarik. Horrela laguntza eman eta eskatzea, besteen gaitasun eta zailtasunak naturaltasunez onartzea, edonorekin lan egiten ikastea, talde barruan bakoitzaren tokia eta egitekoa topatzea eta beste hainbat gaitasun garatzea dakar.

Elkarrekintza horrek emozioak azaleratzeko bidea zabaltzen du, momentuak momentu, testuinguru bakoitzeko taldeek aldarte desberdin eta egoera desberdinak bizi dituztelarik. Emozio positibo eta kudeatzeko zailagoak direnen agerpenak hauek onartzen eta tratatzen irakasten digu, heldutasun puntu bat lortuz.

Egoera honetan eskolako partaide bakoitza taldean identifikatzen da eta talde bateko osagaia dela ulertzen du, elkarrengandik ikasi eta kontzeptu- eta jarrera-eskemak aldatzeko egoera konstantean bizi delarik. Partaide bakoitza berezia eta bakarra izanik, bere izaera eta egoera propioa izanik, talde handian dagoen aniztasuna aberasgarri bezala ulertu eta horretatik ikasi eta haztean datza sozializazio printzipioak.

### Jarduera printzipioa

Jarduera printzipioak oso oinarri argia dauka: “ikasle bakoitzak bere kabuz egin dezakeen ezer ez egitea irakasleak” (Loli Anaut, 2004). Aktibitatea gidatua denez eta emaitza baten bila bideraturik dagoenez, ez da gogoetarik gabeko ekintza soil bat, zentzua eta zeresana duena baizik. Ikasleen motibazio eta interesak bultzatua da, eta honetaz gain bakoitzaren erabaki, gogoeta eta jarduteko gaitasunaren arabera gauzatzen denez autoestimua errefortzuan paper garrantzitsua du. Norberaren inplikazioa dakar eta helburua garbi izatea eskatzen du, gainera, aurretikoak (planifikazioa, aurredeiak) ekintzaren kalitatea markatzen dutenaz ohartzea ekartzen du.

Honetaz guztiaz gain, ahaleginaren balioa eta norberaren estiloa mantentzea indartzen du, jarduera orotan aktiboki ibiltzean bakoitzaren marka edo zigilua uzteari indarra emanez.

Ikasleari jarduten uzten badiogu bere ekintza bideratu gabe, baliteke irakasleak esperoko lukeen emaitza ez lortzea, baina posiblea da ikasleak prozesu horretan gehiago ikasi izana jardute zuzendu batean ebazpen zuzena lortzerakoan baino.

### Sormen printzipioa

Sortzea zerbaiti bizitza eta izatea ematea da, ezaguna dena edo eginda dagoenaz haratago joatea. Bakoitzak bere estiloa indartu, bere ideiak defendatzeko ausardia izan eta ideiak aurrera eramatearekin zerikusi zuzena du. Gizabanako guztiok dugun inteligentzia mota bat da, egoera edo momentuaren arabera desberdin garatzen dena; horrela, bakoitzaren autoezagutzarako eta baita norberaren emozioen ezagutza, onarpen eta adierazpenerako tresna paregabea da.

Amara Berri sistemak ikasleen sormena oso forma indartsuan probokatzen du, afektu eta konfiantza giro batean, jarrera epaitzailerik eta zentsurazkorik egongo ez dela ziurtatuz. Egoera baten aurrean edo proposaturiko ekintza baten aurrean ikasleak bide edo planteamendu desberdinak aztertutik ikuspuntu desberdinak baloratzea eta onartzea dakar.

### Askatasun printzipioa

Indibidualizazio printzipioak eta sozializazio printzipioak artean duten bizi-egoerari dagokio. Aurretiaz aipaturiko printzipioetan azaldutako dena burutzeko eskubidean datza: pentsatzeko, adierazteko, aukeratzeko, bakoitza den bezala azaltzeko, ... eskubidean, beti ere besteenganako begirunez eta errespetuz. Norberaren mugak eta besteonak ezagutzeko eta izaera kritikoa garatuz, elkarbizitzarako eta sozializatorako gaitasuna eta heldutasuna lantzen da.

### Globalizazio printzipioa

Ikaslea gizabanako global bezala ulertzen badugu eta bizi-prozesua globala den heinean, eskolak aurkezten duen sistemak ere globaltasunean jarduteko beharra du. Ikastetxea bere osotasunean ulertzen da eta horregatik antolamendu-egiturak globala izan behar du, elementu eta partaide oro barnebilduz.

Globaltasun horretan hainbat agente eta hainbat elementu daudenez etengabeko elkarreaginean, sistemak berak etengabe jasaten ditu aldaketak; eta horrela esan dezakegu ez dela estatikoa, sistema irekia dela baizik.

### Normalizazio printzipioa

Bizitza, afektuak, sentimenduak, burua, objektuak, ideiak, ... ordenatu eta ezagutzea. Testuingurua ezagutu, menderatu eta bertan kokatu eta maneiatzean datza. Ageriko errealitatea eskolara eramatea eta hau ezagutzea, bizitzarako gaitasuna, eskolan lantzekoa ere bada.

Etengabe egiten den lana da, askotan beste lan batzuen azpian, subliminalki lantzen delarik, baina batzuetan egoera bereziren bat dela eta ekintzaren edo dinamikaren baten bitartez lantzekoa ere bada.

Jardun eta ekintza hauetan ikasleak, irakasleak eta eskola-komunitateko edozein partaide dira protagonistak, azken finean gaitasun pertsonal bat garatzeko lana baita eta hori bakoitzak bere barnetik azaleratzen dio gizarte osoari.



## 2. eranskina: Ikaslearen kontzepzioa

Ikasleak ikas-irakaskuntza prozesuko protagonista izanik, haien inguruko ikuskerak hezkuntza-prozesu osoa baldintzatuko du; horregatik ematen zaio garrantzi handia honi Amara Berri sisteman. Ikuskera honek, hala ere, eskolan barne aritzen den edozein partehartzaileri ere egiten dio erreferentzia; azken batean, pertsona kontzeptuaz ari baita.

Amara Berri sistemak, ikaslea lanaren eta eskolaren ardatzean kokatzen du, edozein analisi egiten duela edo edozein erabaki hartzen duela, ikasleak baitira honen zentroa. Ikasleen garapena eta aukera-berdintasunetik, haien ongizatea bultzatu nahi da, irakasle, familia, entitate edo beste edozeinen interesen gainetik.

Ikasle bakoitza horrela definitu eta ulertzen da:

- Izaki globala da.
- Interes eta motibazio propioak ditu.
- Kontzeptu- eta emozio-eskema zehatz batetik abiatzen da.
- Bere potentziala du.

### Izaki globala da:

Ikaslea ez da izaki isolatua, ezta estatiko edota amaitua ere; etengabeko prozesuan dago. Izaki moduan osotua da, baina osotasun hori ez da zati desberdinen batura, osotasuna elkarrekintzan dauden zatiek eratzen baitute. Hau dela eta, ikasle bakoitzak bere barnetik hasita egiten du garapena, eta bakoitzak bere prozesu propioa bizi du.

Horrela, gizabanakoa izaki global bezala ulertuta elkarrekintzan dauden parteak ezagutu eta onartzera garamatza, eta hauek besteengan duten eragina ulertzera ere.

### Interes eta motibazio propioak ditu:

Hezkuntza munduan askotan esaten da ikasleak motibatu beharra dagoela, baina Amara Berri sisteman honen kontrara egiten da. ikasle bakoitzak bere motibazioa baduela eta irakaslearen lanak horrekin konektatzean datzala defendatzen dute, ez motibazioa sortzean.

Interes horiekin lotura egiteko estrategiatzat hartu dute jolasa, baina denbora-pasarekin edo baliogabeko ekintza bezala ulertu gabe. Adin guztietako jendea jolastu egiten da, gauza batera edo bestera, eta horren naturaltasunaz aprobetxatu nahi dira. Plazaratzen den jolasa imitazio jolas modura planteatzen da, bizitza errealeko egoera desberdinak imitatzeko jolas modura. Mota honetako jolasek pertsonalki hazten, jardueren gakoak ezagutzen, metodoarekin lan egiten, harremanetan jartzen, ardurak hartzen esperientziak pilatzen, , ilusioa izaten, erabakiak hartzen, ... lagunduko diete.

Argi egon behar duena da jolasak ez duela kutsu ludiko hutsa. Imitatzen duten errealitate horretatik habiatzen dira ikasleak bere interesekin bat egin dezan, baina jakinda esku-hartze egokiak izango direla aurrerapausoak egiteko eta gogoeta- eta bizi-dinamika sustatzeko, norbanakoaren eta taldearen garapena ekarritz.

Jolasa eskolako hezkuntza-asmoaren parte da, Ikastetxearen Curriculum Proiektuan azaltzen den moduan. Bertan jarduera bakoitza planifikatzean zein gaitasun eta ze eduki lantzen diren azaltzen da, eta den-denetan planeatzen da hobetze pertsonala gauzatzeko aukera eta harreman sozialerako apeta ere. Jarduera batzuek harreman soziala berezkoa dute, eta beste batzuk indibidualagoak dira, baina zertarako sozial bat izango dute, funtzio hori galtzen ez delarik.

#### Kontzeptu- eta emozio-eskema zehatz batetik abiatzen da:

Gizabanako bakoitzak gauza zehatz batzuei buruz kontzeptu zehatz batzuk dakizki, hau da, bakoitzak bere kontzeptu-eskema du, besteena ez bezalakoa. Horrela, ikasle bakoitzak bere aurre-jakintza propioak ditu, eta bakoitzaren ezaugarri da hori, ez taldearena. Ikasle bakoitza jada dituen kontzeptuetatik habiatuko da lanean jarraitzeko.

Bestalde, ikasle bakoitza momentuan bizi duen egoeratik ere habiatuko da lan bakoitzari ekiteko; izan ere, gizabanako bakoitzak bere emozio-eskema ere badu, bizi izandako historiaren emaitza, pertsonala eta besterenezina.

Bi eskemak (kontzeptuzkoa eta emoziozkoa) estuki erlazionaturik daude, eta eskema horiek badirela ohartzea da programatzeko eta esku hartzeko orduan faktore garrantzitsuenetakoa Amara Berri sisteman.

Bakoitzak bere potentziala du:

Begi bistakoa den arren, batzuetan eskolak programatzerakoan aspektu hau ahaztu egiten dela salatzen dute Amara Berriko irakasleek, eta haien sistema horren kontrara ezarri dute. Horrela, eskolak errealitate zabalak ezagutu eta erakutsi behar dituela defendatzen dute, sistema itxiak eta uniformetasuna albo batera utziz; eskola-porrotak ez izateko soilik ikasle edo irakaslearen inplikazio edo lan falta. Hori dela eta, norberaren mailan eta erritmoan lan egiteak norberaren potentziala eta erosotasuna sustatuko du, bakoitzaren garapena izanda ebaluatzen dena, ez soilik amaierako emaitza. Horrela, prozesua ebaluatuz, ezinezkoa izango da eskola-porrotaz aritzea, nolabaiteko garapena beti ematen baita.

### 3. eranskina: Galdetegia

Jone Oliban Lizarraga naiz, EHUko Lehen Hezkuntzako Graduko laugarren mailako ikaslea. Gradu Amaierako Lana (GAL) burutzen ari naiz eta horretarako zeure kolaborazioa eskertuko nuke. Nire ikerketa lana Amara Berri Sistemaren inguruan da, honek ikasleen garapen globalean duen eragin positiboaren inguruan.

Jakina den arren ikasle bakoitza desberdina dela, Amara Berri Sistemako ikasleria globaltasunean hartu eta profil global bat eraikitzea da asmoa. Horregatik, ikasle taldean orokorrean pentsatuz ezaugarri komunak bat edo profil orokor bat identifikatzen baduzu adierazi hemen:

---



---



---



---



---



---

Jarraian, ondorengo galdetegiari erantzun, mesedez:

Lan-esperientzia hezkuntzan:
Lan-esperientzia zentro honetan:
Ikasleen adina:

Erantzun honako item hauei Amara Berri Sistemako ikasleen inguruan (1 ez nago ados, 2 ez nago guztiz ados, 3 erdizka ados nago, 4 ados nago, 5 guztiz ados nago):

	1	2	3	4	5
Irakurritako testuen ideia nagusiak ulertu eta eskema batean antolatzeke gai da.					
Irakurritako testuetan ulertzen ez duena galdetzeko edo bilatzeko errekurtsoak ditu.					
Testu koherente eta kohesionatuak sortzen ditu.					
Bere iritzia eta ideiak taldearen aurrean adierazteko gai da.					
Testu mota bakoitzaren egitura eta ezaugarriak errespetatzen ditu.					
Testuak sortzerako orduan sormena eta kreatibitatea adierazten du.					
Kontzeptu eta ideia abstraktuak ulertzeko eta adierazteko gai da.					

	1	2	3	4	5
Jarduera eta lanen aurrean motibazioa eta lan jarrera egokia azaltzen du.					
Parte hartze aktiboa du.					
Lanerako orduan autonomia eta traben aurrean beste bide batzuk topatzeko gaitasuna agertzen du.					
Taldearen aurrean hitz egiteko gaitasuna eta trebezia du.					
Eztabaidetan argudioak ematen eta arrazoitzen jarduten du.					
Burutzen dituen lanetan txukuntasuna eta ordena zaintzen duela nabari da.					
Lanak burutzean konstantzia eta ardura nabari da. Lanak egunean eramaten ditu.					
Ikasketengatiko interesa eta ardura agertzen ditu.					
Talde lanean aritzeko gaitasuna eta trebeziak ditu.					
Kideei laguntza eskatu edo eskaintzen die.					
Bere kideekin erlazio zuzenak eta errespetuzkoak mantentzen ditu. Taldean ondo integraturik dago.					
Irakasleekin eta gainerako hezitzaileekin begirunezko harreman egokia du.					

Zer edo zer argitu edo adierazi nahi izatekotan, hementxe duzu tartea:

---



---



---



---



---



---



---



---



---



---



---

Mila esker zure kolaborazioagatik  
 Jone Oliban Lizarraga

4. eranskina: Jasotako datuak

## KALIFIKAZIOEN KONTSULTA

Aurtengo maila/sexua	NATUR	GIZARTE	G.H.	GAZTELANIA	EUSKARA	INGELESA	MATEMATIKA	MUSIKA	TEKNOLOGIA	b.b.
2. mutila	9	9	7	8	8	7	9	8	10	8,33
2. mutila	7	7	7	5	5	5	6	8	5	6,11
2. mutila	7	7	8	7	7	9	7	8	8	7,55
2. mutila	8	8	10	7	7	9	6	8	7	7,00
1. mutila	4/6	3	7	2/2	4/5	3	5	5	5	4,55
2. neska	4	4/1	6	3/3	5	3/3	5	5	4/3	4,33
1. neska	2	1	3	2	5	4	5	3	4	3,22
2. neska	5	5	8	6	6	6	5	6	5	5,78
2. mutila	5	5	9	5	5	6	5	7	6	5,89
2. neska	5	6	6	6	5	5	6	6	6	5,67
2. mutila	5	5	6	5	5	1	5	5	4	4,56
2. neska	5	5	8	6	6	5	4	7	6	5,78
2. neska	6	7	8	8	7	9	8	8	6	7,44
2. mutila	9	10	10	10	10	10	10	10	10	9,89
2. neska	8	9	7	10	9	10	10	8	9	8,89
2. neska	8	9	7	10	8	9	9	8	8	8,44
1. neska	2	4	5	3	3	3	3/5	5	5	3,89
2. neska	9	10	8	10	10	10	10	10	10	9,67
2. neska	5	4	6	5	3	7	5	5	5	5,00
2. neska	4/2	4/1	6	6	7	5	4/2	5	6	5,22
2. neska	7	7	7	10	10	9	7	8	7	8,00
2. mutila	5	3/2	7	4/2	4/5	3/1	7	5	5	5,00
2. neska	6	6	8	10	8	7	9	8	8	7,78

2. neska	6	6	7	8	8	7	7	7	8	7,67
2. neska	6	5	9	8	9	8	9	8	7	7,67
2. mutila	7	7	7	9	8	9	8	8	8	7,89
2. mutila	5	4	9	6	7	5	7	5	5	5,89
2. neska	7	7	7	9	10	8	7	7	7	7,67
2. neska	6	6	9	7	7	7	7	7	7	7,00
2. neska	5	7	8	6	7	6	6	6	7	6,44
2. neska	9	8	8	9	8	8	7	8	8	8,11
2. neska	7	7	9	7	7	8	6	7	6	7,11
2. neska	7	9	9	7	8	8	8	8	8	8,00
2. mutila	6	6	9	6	6	6	5	6	6	6,22
2. mutila	6	5	8	6	6	6	6	7	7	6,33
2. neska	9	8	8	9	9	8	7	8	7	8,11
2. mutila	9	10	10	10	9	10	9	9	10	9,55
2. neska	7	7	9	7	6	7	8	7	7	7,22
2. neska	7	7	9	7	6	8	7	7	7	7,22
1. neska	4/5	4/2	8	4/3	5	5	4/3	6	5	5,11
2. mutila (B eredua)	2/1	4/1	7	5	3/5	5	3/5	5	3/3	4,55
2. mutila	5	5	10	5	5	7	6	6	6	6,11
	6,14	6,02	7,71	6,28	6,47	8,04	8,19	6,85	6,62	6,92

2012-2013 promozioan, DBHko 1. mailan:

DENERA: 94 ikasle Promozionatu dira:82 Ez dira promozionatu: 12	AMARA BERRI SISTEMATIK ETORRIAK Promozionatu dira: 38 ikasle (b.b. 6,97) Ez dira promozionatu: 4 ikasle (b.b. 4,19)	GAINERAKO SISTEMETATK ETORRIAK Promozionatu dira: 44 Ez dira promozionatu: 8 ikasle
---	---	---

## 5. eranskina: Hitzarmen adostua

### HITZARMEN ADOSTUA

Nik, \_\_\_\_\_ jaun/andereak,  
\_\_\_\_\_-ren izenean, adierazten dut:

Nire kolaborazioa eskatzen duen ikerketa honen inguruan informatua izan naizela eta aukera izan dudala ikerketaren inguruan eta honen aurrera eramatearen inguruan galdetzeko, erantzun positiboak jasoz EHUko Lehen Hezkuntzako Graduaren ikaslearen eskutik.

Nire parte-hartzea borondatezkoa da eta badakit, nahi izatekotan, edozein momentutan uko egin diezaiokedala ikerketan parte hartzeari inolako azalpenik emateko beharrik gabe, edo ondoriorik jasan gabe.

Gainera, informatua izan nahiz hurrengoko puntuen inguruan:

- Nik neuk edo jarduten naizen zentroak erraztuko dituen datuak erabiliak izango dira neure eta instituzioaren intimitatea errespetatuz. Ezin izango dira datu horiek zabaldu nire/instituzioaren adostasunik gabe.
- Datu hauek **soilik** erabiliko dira ikerketa honen helburuak asetzeko, zeintzuk ezagutzen ditudan.
- Ez dira datu hauek erabiliko konparaziorako edota zentroaren balorazioa egiteko, interpretazio soil eta hutserako baizik.

Adierazi dezaket, beraz, dokumentu hau irakurri ondoren, nire konpromisoak eta eskubideak ulertu eta onartzen ditudala. Horregatik, hitzarmen hau sinatzen dut eta ikerketa honetan BOLUNTARIOKI PARTE HARTZEN DUDALA, kontrakoa adierazi arte.

Hitzarmen hau sinatzean nire adostasuna ageri dut honetan adierazitakoarekin. Kopia bat jasoko dut gorde eta geroko kontsultarako.

Data:

Sinadura:

Zentroko zigilua: